BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4092

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 27koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, Irungo udalerrian dagoen Larreaundi BerriaTBA deritzon Banaketako Transformazio Azpiestazioa egiteko aurreproiektuaren barruko instalazioetarako baimena ematen duena, eta instalazio horiek herri-onurakotzat jotzen dituena. Erref.: 24045/A.T.D. 2012/45.

AURREKARIAK

Bat.– 2012ko abuztuaren 7an, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. enpresak (Ribera de Axpe 5, Erandio, Bizkaia) eskatu zuen, batetik, Irungo udalerrian dagoen Larreaundi BerriaTBA deritzon Banaketako Transformazio Azpiestazioa egiteko aurreproiektuaren barruko instalazioetarako administrazio-baimena, eta, bestetik instalazio horien gaineko herri-onurako deklarazioa.

Bi.– Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuko 10. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuko 144. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.Uren eskabidea jendaurrean erakusteko iragarkia argitaratu zen, 2012-12-20ko EHAAn, 2012-11-28ko BAOn eta 2012-12-04ko El Diario Vasco egunkarian.

Hiru.– 2012ko azaroaren 23an, ofizio bat igorri zitzaion Irungo Udalari, aipaturiko iragarkia udaletxeko iragarki-oholean jar zezan, eta, aldi berean, instalazioaren herri-onuraren deklarazioa bidezkoa zen ala ez adierazteko txostena, eta, hala bazegokion, egoki iritzako baldintza teknikoak aurkez zitzan. Eskaera hori berriro egin zen 2013ko urtarrilaren 7an.

Lau.– 2013ko urtarrilaren 8an, Irungo Udalak aldeko txostena eman zuen, eta baldintza tekniko batzuek ezarri zituen.

Bost.– 2012ko azaroaren 23an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamendura eta Azpiegituren Departamendura eta Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziara (AESA) ofizioa bidali zen, eta bertan eskatu zen eskatutako baimena onartzeko, eta, onartuz gero, baldintza teknikoak ezartzeko.

Sei.– 2012ko abenduaren 4an, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamenduak aldeko txostena eman zuen, eta baldintza teknikoak ezarri.

Zazpi.– 2012ko abenduaren 13an, AESAk dokumentazio osagarria eskatu zion Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari espedientearekin jarraitu ahal izateko. Eskaera hori enpresa eskatzaileari bidali zitzaion, hark erantzun zezan.

Zortzi.– Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. enpresa eskatzaileari baldintzak bidali zitzaizkion, zeinak erantzun baitzuen baldintzak onartzen zituela.

Bederatzi.– Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. enpresa eskatzaileak idazki bat aurkeztu zuen, non adierazten zuen AESAk egindako dokumentazio-eskaerari Irungo Udalaren bidez erantzun ziola.

Hamar.– Berariaz ezarritako informazio-aldiaren barruan, Javier Herrera Goyak alegazio-idazki bat aurkeztu zuen, eta, laburbilduz, honako hau adierazten zuen, administrazio honen eskumeneko arloei dagokienez:

● Txenperenea esparruaren Lehen Sektorizatze Planak ingurumenean izango duen eraginari buruko azterketan, hiru aukera aztertu ziren, baina aukera horietako batean ere ez zen sartzen azpiestazio elektriko bat ezartzea, ezta telekomunikazioetako dorre-antena bat ere; eta sektorizatze planaren bigarren bertsio batean sartu zen aipatu instalazioa, eta, beraz, ez dago instalazio horren gaineko ingurumen-inpaktuko azterketarik.

● Instalazioen proiektuan ez dira kontuan hartu jarduera horiek ingurumenean eragiten dutenari buruzko azterketa eta balorazioaren ondorioak, eta instalazio horiek jasota daude EAEko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean.

● Iberdrolak, administrazio-baimenaz gain, transformazio-azpiestazio berria eraikitzeko obren herri-onuraren deklarazioa eskatu zuen; baina hirigintza-antolamenduko planen behin betiko onarpenak berekin dakar obren herri-onuraren deklarazioa eta lursailak okupatu beharra, desjabetzeko edo zortasun-ezarpenerako. Eta, beraz, ez du zentzurik obren herri-onuraren deklarazioa berriro egiteak. Halaber, aditzera ematen du ezen, udalaren eskumena dela lursailak desjabetzea azpiestazioa aurrez egiteko, interes publikoko dotazioa baita.

Hamaika.– Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U. enpresa eskatzaileari Javier Herrera Goya jaunak egindako alegazioa helarazi zitzaion, eta laburki esanda, enpresak honako hau erantzun zuen:

● Proiektatutako instalazioak hirigintza-, energia- eta ingurumen-araudia betetzen duela; eta instalazioa ez dagoela ingurumen-inpaktuaren azterketa-prozeduraren menpe, ez baita sartzen EAEko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren I. Eranskinean jasotako egoeretan, ezta oinarrizko araudian, hots, Proiektuen Ingurumen Inpaktua Ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuan, jasotako egoeretan ere; izan ere, instalazioa ez da egingo ingurumenaren aldetik sentikorra den eremu batean.

● Era berean, aurreikusi den komunikazio-dorrea azpiestazio elektrikoari atxikitako elementua da, zeina ezinbestekoa baita beharrezko fidagarritasunarekin funtzionatzeko; beraz, ezin da bereizi instalazioaren gainerakotik.

● Eskatutako herri-onuraren deklarazioari dagokionez, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 52. artikuluak, honako hau ezartzen du:

«1.– Herri-onurako dira energia elektrikoa sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko instalazio elektrikoak, horiek ezartzeko beharrezko diren ondasunen eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen eta bide-zortasunaren ezarpen eta erabileraren ondorioetarako.

2.– Herri-onurako deklarazio hori egingo da baita ere instalazio elektrikoen nahitaezko desjabetzearen eta horien kokapenen ondorioetarako, baldin eta instalazio horiek, energia-, teknologia- edo ingurumen-eraginkortasuna dela-eta, beste instalazio batzuek ordezkatu behar badituzte edo instalazio horietan aldaketa garrantzitsuak egin behar badira.»

Eta, beraz, enpresa eskatzaileak herri-onurako deklarazio hori eskatu du, Sektore Elektrikoko Legearen 52. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

OINARRI JURIDIKOAK

Bat.– Espedientean bete egin dira honako xedapen hauetako erregelamenduzko izapideak: Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea (1997-11-28ko BOE); abenduaren 3ko 282/2002 Dekretua, honako instalazio hauek eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko

eta ixteko administrazio baimenerako prozedurak arautzen dituena: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, bai eta kontsumitzaileak konektatzeko hartuneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere (2002-12-23ko EHAA); abenduaren 1eko 1955/2000 Dekretua, argindarra garraiatu, banatu, merkaturatu eta zuzkitzeko jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituena; eta horrekin bat datorren gainerako legeria.

Bi.– Sektore Elektrikoari buruzko 54/1997 Legearen 52. artikuluak herri-onurakotzat jotzen ditu argindarra banatzeko instalazioak, horiek instalatzeko beharrezko diren ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzea egiteko eta bide-zortasuna ezarri eta erabiltzeko, eta, deklarazio horrek berez berekin dakar ondasun eta eskubide horiek hartu beharra eta presaz okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluaren ondorioetarako.

Hiru.– Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. enpresa eskatzaileak behar bezala erantzun die Javier Herrera Goyak aurkeztutako alegazioei. Horri dagokionez, hirigintzaren aldetik, Udalak aldeko txostena eman du; eta ingurumenaren aldetik, instalazioa ez dago ingurumen-inpaktuaren azterketa-prozeduraren menpe.

Lau.– Javier Herrera Goyak egin duen alegazioan adierazten diren desjabetze eta zortasunei dagokienez, abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren 27. artikuluan hauxe ezartzen da:

«1.– Sektore Elektrikoaren Legeko (54/1997 Legea, azaroaren 27koa) IX. tituluan xedatutako ondorioetarako, dekretu honen eremuan sartutako instalazioen herri-onura zehazki onartzea, Energia zuzendariak erabakiko du. Hala ere, zuzenbide publikoko erakunderen batek aurka eginez gero, Gobernu Kontseiluak izango du aginpidea.

2.– Onarpen horretarako, beharrezko izango da interesatuak eskatzea. Horretarako, eskatzaileak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun edo eskubideen zerrenda zehatza eta banakatua aurkeztu beharko du.

3.– Herri-onurakotzat izendatzeak berekin dakar, betiere, eragindako eskubideak okupatu eta eskuratu beharra, eta presakako okupazioa ekarriko du, Nahitaezko Desjabetzearen Legeko 52. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Era berean, berekin ekarriko du instalazio elektrikoa ondorengo toki hauetan ezartzeko edo pasatzeko baimena: Estatuaren nahiz Autonomia Erkidegoaren jabetza, erabilera edo zerbitzu publikoko edo ondarezko lurretan, edo erabilera publikokoetan, lurralde historikoaren edo udalaren lur propio edo komunaletan, horien obra eta zerbitzuetan, eta zortasun publikoko zonetan.»

Bost.– Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariak, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuan ematen zaizkion ahalmenez baliatuz (2013-04-24ko EHAA), hau

EBAZTEN DU:

1.– Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. enpresari baimena ematea Irungo udalerrian dagoen Larreaundi Berria deritzon Banaketako Transformazio Azpiestazioa egiteko aurreproiektuaren barruko instalazio elektrikoak egiteko. Hona hemen instalazio horien ezaugarriak:

– Mota: barrukoa, transformadoreak atari zabalean.

– Potentzia: 2 x 20 MVA.

– Transformazio erlazioa: 30/13,8 kV.

2.– Baimentzen diren instalazioak herri-onurakotzat jotzea. Deklarazio horrek, azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 54. artikuluan xedatutakoaren indarrez, honako hauek dakartza: ondasunak okupatu eta eraginpeko eskubideak hartu behar direla, eta okupazioa, gainera, presaz egin behar dela. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluak presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen dituen ondorioak ekartzen ditu, 53. artikuluan zehaztutako erregistro ondorioekin.

Ebazpen hau abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan (2002-12-23ko EHAA) ezarritakoari eta jarraian adierazten diren baldintza orokorrei jarraituz ematen da:

● Ebazpen hau eman eta urtebeteko epean, enpresa eskatzaileak egikaritze-proiektuaren onarpena eskatu behar du, eta ez betetzeren bat gertatuz gero, baimena amaitu egingo da. Enpresa eskatzaileak beharrezkoak diren luzapenak eska ditzake, baldin eta arrazoi justifikaturik badago.

● Obrak egiteko beharrezkoak diren baimenak edo lizentziak (udalen eskumenekoek, probintzien eskumenekoak edo bestelakoak) edozein direla ere, horiek aparte utzi gabe ematen da baimen hau, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Halaber, hirugarrenen eskubideak eragotzi gabe eta jabetza-eskubidea salbu utziz ematen da baimen hau.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, 4/1999 Legean ezarritakoa betez (lege horren bidez, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 27a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.